



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezeziel Loiarte Santesteban.
Imanol Baleztena Elizalde.
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2019eko azaroaren 12an, 18:30etan, ezohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkurako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** erabaki du aurreko bilkurako aktak **onartzea**.

2. AURREKONTUAK ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak aurrekontua eta plantilla organikoa aurkeztu ditu eta ondoren bozkatzera deitu du. Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1.- 2020ko Aurrekontua eta Plantilla organikoari hasierako onespena ematea.

2.- 2020ko Aurrekontua eta Plantilla erakustaldi publikoan jartzea hamabost laneguneko epean.

3.- Erakustaldi publikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Idazkariak 2020ko zerga, tasa eta prezio publikoak aurkeztu egin ditu. Aurkeztutako 2020ko zerga, tasa eta prezio publikoak, 2019koen berdinak dira, hurrengo aldaketekin:

Kontribuzioarentzako kuota bakarra onartzea %0,2koa.

Tarifa A-1. Suministro para uso doméstico atalean tarte berria aprobatzea 0 metro kubikotik 10era, 3,5 euroko kuota finkoa paratuz.

Hirilurren balio igoeraren gaineko zergaren kuota %0,lean paratzea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1.- 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak onartzea.

2.- 2019ko zerga, tasa eta prezio publikoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. MALERREKAKO BABES OFIZIALEKO PISUEN PATRONATUAK EGINDAKO DOAINIKO LAGAPENA: ONESPENA.

Alkateak azaldu du, Malerrekako Mankomunitateak jabegoaren lagapena onartu duela. Lagapenaren bidez, Babes Ofizialeko Etxebizitzetan inbertsioa egin duten Udalei eta egin duten inbertsioaren ehunekoan, Patronatutik Udaletara etxebizitza horien jabegoa eskualdatu nahi da. Akordioa aztertu ondoren eta 280/1990 Foru Dekretuaren arabera Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1. Patronatuak egindako lagapena onartzea.

2. Patronatoari onarpenaren berri ematea.

5. UE-C UNITATEAREN ALDAKETA XEHAKATUA, BIRPARTZELAZIOA ETA KUDEAKETA HITZARMENA: HASIERAKO ONESPENA.

UE-C unitatearen xehetasun azterlana, birpartzelazioa, urbanizazio proiektua eta kudeaketa hitzarmena prestatu eta aurkeztu dira David Juanicorena bizilagunaren izenean. Arkitekto aholkularien txostena kontuan hartuta eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1. Hasierako onespena ematea 1 poligonoko 38 partzelaren xehetasun azterlanari, birpartzelazioari, urbanizazio proiektua eta kudeaketa hitzarmenari.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan, jendaurrean egon dadin hoge laneguneko epean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari eta aldameneko lursailen jabe guztiei.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

6. ESKAERAK.

6.1.- Iker Gorosterrazu Elizagoien Maestraren etxeko alokairuaren kontratua bertan behera uzteko eskaera aurkeztu zuen. Eskaerarekin batera kontratua berarekin batera bizi den herritarrari transmititzeko eskatu zuen. Udalbatzak **aho batez** hurrengoa erabaki du:

1.- Kontratuaren amaierarekin Maestraren etxeko alokairua eskuratzeko aukera herriari bando bidez zabaltzea.

2.- Akordioa interesdunari jakinarztea.

6.2.- Camino Tellechea Erro herritar batzuen izenean, Azperroko errekaaren ubidea garbitzeko eskaera aurkeztu zuen, uholdeak sortzen direla argudiatuz. Udalbatzak **aho batez** hurrengoa erabaki du:

1.- Ubidearen egoera ikustera joatea.

2.- Konfederazioarekin harremanetan jartzea egoera argitzeko.

3.- Aurreko bi ekintza horietatik beharra ikusten bada bizilagunekin bilera bat paratzea.

6.3.- Uholdeak 2019 Riadas laguntza taldeak Tafalla inguruko kalteak kopontzen laguntzeko eskaera aurkeztu du. Udalbatzak **aho batez** hurrengoa erabaki du:

1.- 2019ko dirulaguntzetarako partida bukatu arte Uholdeak 2019 Riadas diruz lagundu eta 2020ko aurrekontuan beste 100 euro aurreikustea honetarako.

2.- Bandoa herrian zehar hedatzea bizilagunen batek laguntza emateko aukera izan dezan.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

7. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpenen berri eman du (84/2019. ebazpenetik 99/2019. ebazpenera), eta Udalbatza jakinaren gainean geditu da.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Ciauak egin dituen ur-ihesen txostena; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimena Errotaren sarbidea konpontzeko; Kantauriar Konfederazioak emandako baimena ura aprobetxamendua izateko Maria Josefa Elizalde Michelena andreari 856 l/eguneko; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazioako Sailak emandako oihan aprobetxamendu baimenak –Izaskun Santesteban Baleztena, Martín Legazcue Santesteban—Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazioako Sailari eskaturiko oihan aprobetxamenduak –María Mercedes Santesteban Santesteban—Landa Garapeneko eta Ingurugiroko Sailak ofizioz abereen erregistroan emandako bajak—Pedro Mutuberría Baleztena—Jabetasunaren Erregistroak aldameneko garen heinean egindako komunikazioa; Lehendakaritza, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Sailak Bake Epaitegien kudeaketa eramateagatik emandako diru-laguntza;

9. MOZIOAK.

9.1.- Udalbatzak aho batez erabaki du Nafarroako Ehiza Federazioak aurkeztu duen mozioa aztertzea eta eztabaidatzea. Irkaurri ondoren Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1.- Ehiza Nafarroan erro social, kultural eta ekonomiko handia duen jarduera da eta horregatik merezi du laguntza, babesa eta sustapena izatea Nafarroako botere publikoengandik biodibertsitatea eta landa munduko garapen ekonomikoa zaintzen laguntzen baitu.

2.- Udalbatza honek konpromisoa hartzen du Ehiza babesteko eta gobernu Autonomikoa eta Estatukoa premiatzen ditu bere jarduerak zaintzeko landa munduko garapen ekonomikoarendako motorra eta ingurumen zainketarendako tresna baitira.

3.- Akordioa interesdunari jakinarztea.

9.2.- Udalbatzak aho batez erabaki du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak aurkeztu duen mozioa aztertzea eta eztabaidatzea. Irakurri ondoren Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

“1.- ADIERAZTEN DUGU:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota orori.

GURE KONPROMISOA, Administrazio Publikoak garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatuen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira, eta gure gonbita hala gobernuei eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten.

GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakumeei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatoei.

GIZON GUZTIAK PREMIATZEN DITUGU, adin orotakoak, konpromisoak eta jarrera aktiboak har ditzaten, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean.

HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumeei askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.”

10. GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 19:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.